


MONUMENTU MULTZOA A MAILA

"SANTIAGO BIDEA"



Deskribapena

Urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak kultura ondasun kalifikatu zuen Santiago bidea, monumentu multzoaren kategoriaz. Ondoren, berriro deklaratu dute urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez. Dekretu horrek beste haren edukia egokitzen du. Udalerria ekialdetik mendebaldera igarotzen du, ondoko ibilbideari jarraituz: Uliá, Zurriola hiribidea, Kursaal zubia, Boulevard zumardia, Alderdi Eder – Kontxa pasealekua, Miramar jauregiko lorategiak, Ondarretako lorategiak, Erregenea parkea, Igeldo-Mendizorrotz. Era berean, berezko bideaz gainera, azken dekretu horrek monumentu multzoarekin lotzen ditu aurrerago aipatzen diren gainerako eraikin eta elementuak.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen A babes mailan integratzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Kultura ondasun gisa, multzo monumentalaren kategoriaz, deklaratu izanaren ondoriozkoa, urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez (19. EHAA, 2012-1-27koa).
Santiago bidearen babes erregimenak nabarmentzen du, berezko bidea ez ezik, berari lotutako elementu guztiak, dekretu horretan ezarritakoaren arabera. Zehazki, hau da elementuen zerrenda:
 - Kursaal zubia.
 - Igeldoko San Pedro eliza.
 - Udaletxea.
 - Artzain Onaren katedrala.
 - Miramar Jauregia.
 - San Bizente eliza.
 - Santa Maria eliza.
 - Okendo plazako monumentu multzoa (Victoria Eugenia antzokia, M^a Kristina hotela, Okendo almirantearen eskultura).
 - Satrustegi dorrea.
 - Aliri baserria (Zubieta).
 - Aizpurua baserria (Zubieta).
 - Berridi baserria (Zubieta).
 - Almirantearen gotorlekua.
 - Platako itsasargia.
 - Manteoko oinetxea.
 - Mendizorrotzeko gotorlekua.
 - La Perla eraikina.
 - Alamandegia etxea (Zubieta).
 - Santiago eliza (Zubieta).
 - Zubietako erreboter pilotalekua.
 - Amezti Zahar baserria.
 - Artzabaleta baserria (Zubieta).
 - Dindin iturria.
 - Txerritxutu-Muniota bidea.
 - Uliako bidea.
 - Uliako galtzada.